

# BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2019

## BASQUE - LV2

ÉPREUVE DU VENDREDI 21 JUIN 2019

Séries ES/S – Durée de l'épreuve : 2 heures – coefficient : 2

Série L Langue vivante obligatoire (LVO) – Durée de l'épreuve : 3 heures – coefficient : 4

Série L LVO et langue vivante approfondie (LVA) – Durée de l'épreuve : 3 heures – coefficient : 8

Séries STMG, ST2S, STI2D, STD2A, STL – Durée de l'épreuve : 2 heures – coefficient : 2

### ATTENTION

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa série :

Série L (LVA Y COMPRIS) : questionnaire page 3/4

Séries ES/S/STMG/ST2S/STI2D/STD2A/STL : questionnaire page 4/4

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

*Barème appliqué pour la correction.*

|                               |                  |
|-------------------------------|------------------|
| <i>Compréhension</i>          | <i>10 points</i> |
| <i>Expression personnelle</i> | <i>10 points</i> |

Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.  
Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.

## Kazetari lanaz

*Xabi inkesta baten egiten ari da, kantu talde baten desagertzeaz. Maialen, kazetariari galde egiten dio, ea baduen horien berri. Honek bere lana aipatzen dio.*

\* Mota horretako gaiak ez ditut nik segitzen. Prentsaurreko<sup>1</sup> gehienak astean zehar antolatzen dituzte, eta ondorioz, nire lankideek dute ohore hori. Ni aste buru eta arratsetan naute delitzen... Zergatik ez lankide horiengana joan informazio eske? Ez baitu balio. Paradoxa bat baldin badirudi ere, prentsaurrekoetan ez da fitsik ikasten. 5 Prentsaurrekoak eginak dira prentsa gomitatzen duenaren erranak komunikatzeko. Ontsa esplikatu dezadan... Zuk zerbait erratekoa beduzu, ba, prentsaurrekoa antolatzen duzu, erran horiek erraten dituzu eta bastat! Helburua da zure erranak erran zenituen bezala errepikatuak izan daitezen hedabide guztietan. Kazetariak papagaiak<sup>2</sup> dira.

- 10 Egia da bukaeran galderak pausatzen ahal direla, hala diote, hasteko, politetiaz-edo, eta, gainera ez beti. Baina hori ere artifiziala da. Informazioa hastetik buru prentsaurrekoa antolatzen duenak du kontrolatzen, eta ez kazetariak. Hori bai, prentsa dossier jori bat emanen diote kazetari bakoitzari. Disko berria ere dohainik ukanen du; batzuetan beste opari ederrago batzuk ere. Dena apaindura politex 15 estaliko dute, funtsa, ahal bezainbat gordetzeko...

- Kazetariak zer egingen duen? Gehiegi konplikatu gabe, entzun eta notatu duen hori errepikatu. Lan eta denbora gehiegi eskatzen du urrunago joateak. Anitzetan prentsaurrekoaren egun berean bota behar du berria. Prentsaurrekotik atera bezain laster moldatzen du irratirako soinu, telebistarako erreportaje edo aldizkari 20 artikulua. Gai ez delarik korapilatsua, no problem.

- Baina larriena da kazetariak ongi bizi direla horretako ibil-moldearekin. Gai guzientzat, komunikazioaren funtzionario bilakatuak dira anitz. Eta horrekin kontent. Orduetegi finkoak, denekin harreman onak, zer eskatu gehiago? Batzuek fama ere laster lortzen dute, ez dena beti talentuaren araberakoa... Hara nola altxinatzen ari 25 den prentsa gaurko egunean. Dena dela, argi da egoera horrek ez duela luzaz irausten ahaliko. Ezen prentsaurrekoetan erranak errepikatzeko baldin bada soilki, herritarrek beste hamaika bide badituzte, internet eta beste, anitzetan dohainik direnak..."

Nora Arbelbide Lete. Goizeko zazpiak 2006

Hiztegia :

*Prentsaurreko<sup>1</sup> : Conférence de presse*

*Papagaï<sup>2</sup> : perroquet*

**QUESTIONNAIRE A L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SÉRIE L LVO & LVA**  
(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

**I. ULERMENA : (10 puntu)**

1. Maialenek segitzen ote ditu prentsaurrekoak? Zergatik?
2. Zergatik dio kazetariak papagaiak direla?
3. Zer ematen diete antolatzaileek kazetariel?
4. Zein dira kazetariaren zailtasunak bere lana egiterakoan?
5. Iduri du kazetariak kexu direla beren egoeraz edo bizi moldeaz?
6. Zer abantaila bil dezakete egoera hori baliatuz?

**II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)**

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

**Pour les candidats de la série L – LVO :**

1. Nola erakutsiak dira kazetariak testuan?
2. Erraten da prentsa laugarren boterea dela. Hala zaizu? Zergatik

**Pour les candidats de la série L – LVA :**

1. Nola erakutsiak dira kazetariak testuan?
2. Erraten da prentsa laugarren boterea dela. Hala zaizu? Zergatik
3. Bukaeran, testuak erraten du kazetaritza fini dela arrazoi desberdinegatik. Uste ote duzu egia dela?

**QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DES SÉRIES ES, S, STMG,  
STI2D, STD2A, STL et ST2S**

**I. ULERMENA : (10 puntu)**

1. Maialenek segitzen ote ditu prentsaurrekoak? Zergatik?
2. Zergatik dio kazetariak papagaiak direla?
3. Zer ematen diete antolatzaileek kazetariei?
4. Zein dira kazetariaren zailtasunak bere lana egiterakoan?
5. Iduri du kazetariak kexu direla beren egoeraz edo bizi moldeaz?
6. Zer abantaila bil dezakete egoera hori ballatuz?

**II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)**

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

1. Nola erakutsiak dira kazetariak testuan?
2. Erraten da prentsa laugarren boterea dela. Hala zaizu? Zergatik?